

ARGIA SARIAK 2012

Xabier Letona ARGIAko zuzendariaren hitzaldia

Behin eman zioten sari bat ARGIAri eta zerbait esateko eskaini ziguten denboran, saria eskertzeaz gain, esan nuen botere publikoek ez dituztela ondo zaintzen euskarazko hedabide ez publikoak.

Eta esan nuen, besteak beste, euskarazko hedabideok merezi genuela etxeko elektratesnak, altzariak edo autoen gurpilak adinako begirune. Krisia zela eta horiek eta beste sektore batzuk ere laguntza jasotzen ari zirela diru askorekin, baina gu ez. Gure kasuan laguntzek behera egiten zutela.

Kontua da, hitzaldiaren ondoren, jadanik tertulian ari ginela, agintari bat hurbildu zitzaidala haserre, nire hitzaldia ez zitzaiola batere gustatu esanez; ahalegin handia egiten ari zirela eta nire balorazioak ez zitzaizkiola batere justuak iruditzen. Gaineratu zuen, halako ekitaldiak ez direla halakoak esateko lekua, hura festa giroan egiten zela, ondo pasatzera gindoazela hara, eta lekuz kanpo zegoela esandakoa.

Nik erantzun nion ez nengoela ados esaten ari zenarekin, esandakoa kritikoa zela, baina beti errespetuz esandakoa; eta baietz, halako ekitaldiak ere badirela hausnarketa eta kritikarako lekuak.

Orain badakit ondo egin nuela, murrizketen bidea nagusitzen ari dela han-hemenka eta jarraitu beharko dugula aldarrikatzen gehiago behar dugula. Eta jarraitzen dugu pentsatzen zergatik ote garen hain hutsalak errepide edo trenbideen alboan; edo ditugun kultur ekipamendu eder eta garesti horien alboan.

2011n sektorekook hainbat bilera egin ditugu agintariekin eta alderdietako arduradunekin, baina uste dut ez direla egoeraz jabetzen, ez direla ohartzen zein ahalegin erraldoia eskatzen duen euskarazko hedabide ez publikoak aurrera ateratzea; halako hainbaten desagerpenak zer suposa dezakeen.

Besteak beste, diru-laguntzetan %25 gehiago eskatzen genuen aurtengorako. "A zer larru sendoa, garai hauetan zer eta laurden bat gehiago eskatzen!", pentsatuko zuten akaso. Baina %25 gehiago hori ez da iristen bi milioi eurotara instituzio guztien artean... 600 lagunetik gora langile dituen sektorean. Tabakalera eraikitzeak, adibidez, 56 milioi euro balioko du. Eta mantenuak urtero?

Azken 20 urteetan pauso handiak eman ditugu euskarazko hedabideetan, bai eskaintzan eta baita ere kontsumitzaile kopuruan ere. Baina oso hauskorak gara, munduan hain preziatu eta beharrezko diren ekosistema asko moduan: asko kostatzen zaie eratzen, eta di-da batean

desager daitezke. Beraz, nor txikituko ote du krisialdiak hurrengo haginkadan? Komunikazio mundukook esaten dugu bi krisi ditugula: negozio eredu aldaketarena eta oraingo krisialdi ekonomikoa. Baina, ez, hirugarrena ere badago: horien aurretik gure ohiko krisia dago, euskarazko hedabide ez publikook beti bizi izan gara krisian.

Eta hala ere, uste dut baditugula pozik egoteko arrazoiak. Krisiak sektorea bildu du, urtebetez elkar lanean aritu gara. Bai, badakit balorazio asko egin daitezkeela, baina gure artean orain arteko gehienak positiboak izan dira. Hemendik aurrera agian zailagoa izango da, gehiago zehazten hasi behar dugulako, gerrikoa estu dugulako eta seguruenik gehiago estutuko zaigulako. Edozer egiten dugula ere, ARGIAtik uste dugu jarraitu behar dela elkarlanari espazioak zabalik uzten. Ea gai garen.

Instituzioei dei bat, borondate gehien dutenei behintzat, EAEkoei: izan zaitezte zentzuzkoak eta bildu dadila HAKOBA hedabideekin eta erabaki daitezela gauzak zentzuz eta ez instituzio bakoitzak bere aldetik. Koordinaziorako erakundea da hori, ba bildu dadila eta jar ditzala diru-laguntzen politikak norabide egoki eta eraikitzaile batean.

Eta bakeaz ere hitz egin nahi nuen, egoera berriaz, gaur hemen ere islatua dagoena. Ez naiz luzatuko, bakarrik esango dut horrela askoz hobeto bizi garela denok, eta horrek izugarritzko balioa duela. Gehien sufritzen dutenek dakite ondoen hori. Baina hau ez da bukatu: ETArek amaiera ordenatua behar da, arazo teknikoak eta arazo politikoak bideratzeko, eta hori bake prozesu zintzo eta eraginkor batekin egiten da egokien. Gizarte moduan, herri moduan, sekulako aukera dugu begien aurrean, ea gai garen txukun baliatzeko.

2012ko urtarrilaren 27an